

Cultur !zan 2026

Tradiziozko arte
adierazpenen
egitaraua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

NAVARRA ‡ **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Egitaraua	4
Mapa	5
Agenda	6
Bertsondare	7
Erraldoien dantza tradizionala Nafarroan	8
Agur, joan da nere soñue	9
Bandbolinteroak	10
Rondalla tailerra	11
Jotaren herentzia bizia	12
Albokari buruzko hitzaldia eta tailerra	13
Hitzaldia eta kontzertua Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoaren instrumentu historikoekin	14
Rocío Márquez. Eskola magistrala	15
Nafarroako Jota: tradizioa, esentzia eta emozioa	16
Tradizioa eta sorkuntza: musika berriak nafarroako gaitarako	17
Erakusketa: Artzaintzako lurraldeak	18

Aurkezpena

musika, dantza eta ahozko adierazpen herri-
koiak bultzatzeko programa da Cultur Izan.
Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea
Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatzen
du, eta aurten laugarren edizioa egingen da.

Aurkezten dugun programak, aurten ere, helburu du
Nafarroan kultura tradizionalen aritzen diren erakunde
eta elkarten proiektuak eta programazioak babestea
eta erraztea, eta ekitaldi profesionalak ere badakartza,
tradizioa uztartzeko prestakuntzarekin, dibulgazioarekin
eta kultura tradizionalaren oroimenarekin.


Cultur Izan 2026 programako ekitaldiak Foru Komuni-
tateko 11 herritan egingen dira, eta askotarikoak izanen
dira: ahozko adierazpenak, dantza, musika instrumen-
tala, ahots-musika, koruak, prestakuntza-tailerrak, kon-
zertuak eta Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etno-
logikoaren erakusketa bat.

Herri-kulturari loturiko elkarten sektoreak erantzun
ona eman du Cultur Izan programaren aurreko edizioe-
tan, eta horrek agerian uzten du oso garrantzitsua dela
tradizioa babestea, haren adierazpide eta eraldaketa
guztietan, herri-adierazpen gisa duen oinarritik hasi eta
gure kultura-iragana estilizatzen, oroitzen eta berresku-
ratzen duten proposamenetarako.

Egitaraua

Cultur
!zan
2026





ERAKUSKETA ARTZAINZAKO URRALDEAK

IRAILAREN 5ETIK
URRIAREN 25ERA

RONCAL / ERRONKARI
JULIÁN GAYARRE MUSEO-ETXEAN

2026KO URRIAREN 31TIK
2027KO URTARRILAREN 17RA

TUDELA
MUÑOZ SOLA ARTE MODERNOKO MUSEOAN

ABUZZTUA

29 LARUNBATA

**SAIOA ALKAIZA
ETA JULIO SOTO
BERTSOLARIAK**

Bertsondare

PAMPLONA / IRUÑA
12:00etan NAFARROAKO
MUSEOAN

IRAILA

8 ASTEARTEA

**MONTEAGUDOKO
PALOTEADO
DANTZARIAK**

Erraldioen dantza
tradizionala
Nafarroan

MONTEAGUDO

Erraldoi eta buruhandien
konpartsaren desfilea

11:30etan SAN FRANTZISKO
XABIERKOA PLAZAN

Kiliki eta buruhandien
erakusketa

Irailaren 10etik 13ra
KULTUR ETXEAN
19:00etatik 20:30etara

12 LARUNBATA

**ALTZADI LEITZAKO
KULTUR ELKARTEA
(ALKE)**

Agur, joan da
nere soñue

LEITZA
20:00etan PLAZAN

20 IGANDEA

**EUSKAL HERRIKO
TXISTULARI
ELKARTEA**

Bandbolinteroak

SANGÜESA / ZANGOZA
19:00etan KARMENGO
ENTZUNARETOAN

25 OSTIRALA

TREMOLO TALDEA

Rondalla
tailerra

VALLE DE ELORZ /
ELORTZIBAR

Rondallaren instrumentuen
erakusketa
17:00etan

Hitzaldia eta tailerra

18:00etan
ESCUELA MUNICIPAL DE
MÚSICA "JULIÁN GAYARRE"
DEL VALLE DE ELORZ /
ELORTZIBARKO JULIAN
GAYARRE UDAL MUSIKA
ESKOLAN

26 LARUNBATA

**SAIOA ALKAIZA
ETA JULIO SOTO
BERTSOLARIAK**

Bertsondare

RONCAL / ERRONKARI
12:00etan JULIÁN GAYARRE
MUSEO-ETXEAN

URRIA

10 LARUNBATA

NAVARJOTA

Jotaren
herentzia bizia

CASTEJÓN

19:00etan SARASATE
KULTUR GUNEAN

16 OSTIRALA

**JUAN MARI
BELTAÁN**

Albokari buruzko
hitzaldia eta tailerra

ESTELLA-LIZARRA

18:00etatik 20:00etara
JULIÁN ROMANO MUSIKA
ESKOLAN

17 LARUNBATA

**JUAN MARI
BELTAÁN LAUKOTEA**

Hitzaldia eta
kontzertua Julio Caro
Baroja Nafarroako
Museo Etnologikoaren
instrumentu
historikoekin

ESTELLA-LIZARRA

11:00etan JULIÁN ROMANO
MUSIKA ESKOLAN

Agenda

28 ASTEAZKENA

ROCÍO MÁRQUEZ

Eskola magistrala

PAMPLONA / IRUÑA

19:30etan MUSIKAREN HIRIKO
AUDITORIUMEAN

30 OSTIRALA

**ANDOSILLAKO
AUROREN KORUA
ETA VALTIERRAKO
JOTA ESKOLA**

Nafarroako Jota:
tradizioa, esentzia
eta emozioa

ANDOSILLA

19:30etan HESIKO AMA
BIRJINA BASILIKAN

31 LARUNBATA

**GAITEROS DE
ARTAJONA
ARTAXOAKO
GAITEROAK**

Tradizioa eta sorkuntza:
musika berriak
Nafarroako gaitarako

ARTAJONA

18:30etan
KALEJIRA ARTAXOAN
Kontzertua

19:30etan REYNO DE
ARTAJONA ESPAZIO ESZENIKOAN

SAIOA ALKAIZA ETA JULIO SOTO BERTSOLARIAK

Bertsondare

Ekimen honen asmoa da bertsolaritzaren tradizioa (kultura-intereseko ondasun deklaratu, Nafarroako kultura-ondare immateriala den aldetik) eguneratzea eta oraingo herritarrekin lotzea. Tokiko komunitateari eta lurralde hurbilari zuzentzen zaie, Nafarroako publikoari irekita egonen diren bi proposamenen bidez. Abuztuaren 29an, larunbatean, bertsoak Nafarroako Museoan entzunen dira erakusketa iraunkorreko 10 maisulanak bisitatu bitartean. Irailaren 26an, larunbatean, artzaintzaren munduari buruzko saio bat egingen da Erronkari-ko Julián Gayarre museo-etxean, kontuan harturik NBEk 2026. urtea Larreen eta Artzainen Nazioarteko Urtea izendatu zuela; Ekitaldi horietan Saioa Alkaiza eta Julio Soto bertsolari nafarrek parte hartuko dute.

PAMPLONA / IRUÑA



ABUZTUAREN 29an



12:00etan

NAFARROAKO MUSEOAN

museodenavarra.navarra.es/eu/

RONCAL / ERRONKARI



IRAILAREN 26an



12:00etan

JULIÁN GAYARRE MUSEO-ETXEAN

www.juliangayarre.com/eu/

Sarrera doan, leku guztiak bete arte

Jarduera oso-osorik euskaraz egingen da

MONTEAGUDOKO PALOTEADO DANTZARIAK

Erraldoien dantza tradizionala Nafarroan

Proposamenak Nafarroako erraldoien dantzan jartzen du arreta, tradizio horrek Monteagudon ibilbide historiko sendoa duelako eta herrian oso errotua dagoelako.

Jarduerak bereziki haurrentzat dira, zehazki Monteagudoko Honorio Galilea HLHIPko ikasleentzat. Ipuin-kontalaria, norberak bere buruhandia egiteko tailerra eta dantza-ikastaroa (has-tapenak) egiten dira. Erraldoi eta buruhandien tradizioaren transmisio-ekintza hau osatzeko, Nafarroako hainbat herri-tako kiliki eta buruhandien erakusketa izanen da. Amaitzeko, Monteagudoko erraldoi eta buruhandien konpartsa aterako da herriko kaleetatik.

MONTEAGUDO

IRAILAREN 8an

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren desfilea

🕒 11:30etan SAN FRANTZISKO XABIERKOA PLAZAN

IRAILAREN 10etik 13ra

Kiliki eta buruhandien erakusketa

🕒 19:00etatik 20:30etara KULTUR ETXEAN

Sarrera doan, leku guztiak bete arte



AITZADI LEITZAKO KUTUR ELKARTEA (ALKE)

Agur, joan da nere soñue

Antzezlan hau duela mende bat Leitzan gertatutako benetako istorio batean inspiratzen da; garai hartan berreskuratu eta transmititu zen Ingurutxo, herriko dantza enblematikoenetako bat. Hilario Olazarán musikari eta fraide kaputxinoaren lanari baliola ematen dio ikuskizunak. 1926an, Evaristo Elduayen txistulariaren laguntzaz, melodia tradizional horiek bildu zituen lehen aldiz, ordura arte ahoz transmititzen baitziren.

Antzezlanak musika, dantza eta narrazioa uztartzen ditu prozesu historiko hori zeharkatzeko, eta txistuak tokiko kulturen duen funtsezko zeregina azpimarratzen du, bai eta Ramón Olazaránek —aita Hilarioren anaiak— herrian musikari berrien prestakuntzan emandako bultzada ere. Kontakizunak historiaren giza-dimentsioa ere jasotzen du, Elduayenen alargun Marikruz Zabaletaren irudiari arreta berezia eskainiz, hainbeste emakumeren ahalegin isilaren sinboloa baita.

Ikuskizunak izaera komunitario nabarmena du, eta Leitzako hainbat kolektibotako ehun parte-hartzaile inguru biltzen ditu.

LEITZA

 IRAILAREN 12an

 20:00etan LEITZAKO PLAZAN

Sarrera doan, leku guztiak bete arte
Jarduera oso-osorik euskaraz egingen da

Eguraldia txarra bada, litekeena da emanaldiaren eguna aldatzea. Interesa duten pertsonen gomendatzen zaie agenda kontsultatzea. Cultura Navarra webgunean, informazio eguneratua lortzeko: culturavarra.es/eu/cultur-izan



EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA

Bandbolinteroak

Kontzertu honetan musika-sorkuntza berriak entzunen dira, batez ere Nafarroako konpositoreenak. Obrak musika tradizionalen inspiratu dira, eta txistuak, akordeoia eta erritmo-sekzioa nahasten dituen formatu instrumental batera egokitu dira.

Programak soinu-estilo eta -lengoaia desberdinak biltzen ditu, beti elementu tradizionala erreferentzia hartuta, melodietan zein erritmoetan, begirada garaikide batetik.

Ikuskizunak balioa ematen die txistuaren aberastasunari eta egungo sortzaileen lanari.

SANGÜESA / ZANGOZA

📅 **IRAILAREN 20an**

🕒 **19:00etan KARMENGO ENTZUNARETOAN**

Sarrera doan, leku guztiak bete arte. Aldez aurretik gonbidapena hartu behar da kultur etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara bitartean, edo sanguesa.es/eu edo sangesacultura.es/eu webguneetan

Ikuskizuna ele bitan izanen da, gaztelaniaz eta euskaraz



TREMOLO TALDEA

Rondalla tailerra

Tailer honek proposatzen du rondallara eta haren instrumentuetara hurbiltzea. Nafarroan oso errotuta dago musika-formazio tradizional hori, baina gaur egun ez dago belau-naldi-erleborik. Aurkezpen praktiko baten bidez hainbat alderdi jorratuko dira; besteak beste, plektoaren erabilera, tinbre-ezaugarriak, afinazioa eta testuinguru historikoa; ondorioz, musika horren aberastasunaren ikuspegi osoa emanen da.

Rondalla osatzen duten instrumenturen batean eta gitarran ezagutzak dituzten parte-hartzaileek beren instrumentua eraman eta esperimentatu ahal izango dute, saioan jorratutako edukiak praktikan jarritz.

Jarduera osatzeko, rondallaren instrumentuak erakutsiko dira, hurbiletik ezagutzeko eta instrumentu-talde horri baliola emateko.

MUSIKARIAK

Carlos Irigoyen Palacín

Daniel Pérez Muniáin

Javier Ignacio Larráyoiz Eguaras



VALLE DE ELORZ / ELORTZIBAR

IRAILAREN 25ean

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA "JULIÁN GAYARRE"
DEL VALLE DE ELORZ / ELORTZIBARKO JULIAN
GAYARRE UDAL MUSIKA ESKOLA

- 🕒 17:00etan RONDALLAREN INSTRUMENTUEN ERAKUSKETA
- 🕒 18:00etan HITZALDIA ETA TAILERRA

Gehieneko inskripzio-kopurua: 30

Izena ematea doakoa da. Helbide honetara idatzi behar da:
culturlzan@navarra.es / 948 23 00 62 (8:00etatik 15:00etara)
Harremanetarako pertsona: Arantxa Bidegain

NAVARAJOTA

Jotaren herentzia bizia

Ikuskizun honen helburua da Nafarroako jotaren transmisio kolektiboari balioa ematea eta tradizio hori bizirik mantendu duten pertsonak aintzatestea.

Ardatz nagusia Maribel Muñoz da. Nafarroako folkloreak erreferentia da, luze aritu da interprete eta irakasle, eta funtsezkoa izan da jota hedatzeko. Castejóngo Jota Eskola sortu zuen, eta ondare hori hainbat belaunaldi transmititu die. Halaber, emakumeak folklorea duen funtsezko zereginaren ikur bihurtu da.

Ikuskizunean narrazio biografikoa, ikus-entzunezko baliabideak eta zuzeneko emanaldiak erabiltzen dira, eta jotaren adierazpen guztiak agertzen dira: kantatua, dantzatua eta instrumentatua.

Azken batean, ikuskizun honek Nafarroako folkloreaken aberastasuna eta jarraitutasuna ospatzen ditu, eta Nafarroako jotaren gaineko begirada hungikigarri, parte-hartzaile eta bizia eskaintzen du.

CASTEJÓN

 **URRIAREN 10ean**

 **19:00etan SARASATE KULTUR GUNEAN**

Sarrera doan, leku guztiak bete arte.
Aldez aurretik gonbidapena hartu behar da
es.patronbase.com/_Castejon/Productions
webgunean edo Sarasate kultur gunea



JUAN MARI BELTRÁN

Albokari buruzko hitzaldia eta tailerra

Tailer honek instrumentuaren funtsezko oinarriak ezagutaraziko ditu, hastapen-mailan. Aurkezpen labur baten bidez, afinazioa, arnasketa-teknikak eta soinuaren sorkuntza jorratuko dira, baita alboka zaharren eta moderno-en arteko desberdintasunak ere.

Instrumentuari buruzko ezagutzak dituzten parte-hartzaileek beren alboka eraman eta espermentatu ahalko dute, saioan jorratutako edukiak praktikan jartzeko.

ESTELLA-LIZARRA

URRIAREN 16an

18:00etatik 20:00etara JULIÁN ROMANO MUSIKA ESKOLAN

Izena ematea doakoa da. Helbide honetara idatzi behar da:
culturlzan@navarra.es / 948 23 00 62 (8:00etatik 15:00etara)
Harremanetarako pertsona: Arantxa Bidegain



JUAN MARI BELTRÁN
LAUKOTEA

Hitzaldia eta kontzertua

Julio Caro Baroja Nafarroako
Museo Etnologikoaren
instrumentu historikoekin

Hitzaldi-kontzertu honen helburua da ibilbide bat eskaintzea Nafarroako Museo Etnologikoaren bilduma osatzen duten herri-instrumentuen historian zehar, eta jendeari ezagutaraztea instrumentu horien errepertorioa eta lurraldeko musika-tradizioan dituzten sustraiak. Aukera paregabea da Nafarroako kultura-ondareko instrumentu historiko batzuen soinua entzuteko.

MUSIKARIAK

Juan Mari Beltran
Errege Belda
Ander Barrenetxea
Aitor Gabilondo

ESTELLA-LIZARRA

📅 URRIAREN 17an

🕒 11:00etan JULIÁN ROMANO MUSIKA ESKOLAN

Sarrera doan, leku guztiak bete arte



ROCÍO MÁRQUEZ

Eskola magistrala

Hitzaldi performatibo bat da, non artistak bere bizi-, lanbide- eta arte-esperientzia transmitituko baitute, tradizioa eta folklorea abiapuntutzat hartuta errepertorio bat sortzeko eta kultura garaikidearekin bat datorren taularatzea egiteko.

Proposamenaren protagonista Rocío Márquez da, gaur egungo flamenkoaren ahots nabarmenetako bat. Ikerketa, sorkuntza eta interpretazioa uztartu ditu haren ibilbide profesionalan. Bere lanak tradizioari heltzen dio egungo begiradarekin: adierazpen-forma berriak aztertzen ditu, baina sustraiekiko lotura galdu gabe.

PAMPLONA / IRUÑA



URRIAREN 28an



19:30ean MUSIKAREN HIRIKO AUDITORIUMEAN

Sarrera doan, leku guztiak bete arte. Aldez aurretik gonbidapena hartu behar da.

Gonbidapenak urriaren 21etik aurrera emanen dira Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko atezaintzan, 9:00etatik 20:00etara



Argazkia: Alejandro Cayetano

ANDOSILLAKO AUROROEN KORUA ETA VALTIERRAKO JOTA ESKOLA

Nafarroako Jota: tradizioa, esentzia eta emozioa

Ikuskizun honek ibilbide bat proposatzen du Nafarroako jotan berrera, tradizioetik sorkuntza garaikidera arte, eta begirada berri-tua eskaintzen dio Nafarroako kultura-ondarearen adierazpen bizia den generoari.

Proposamena kolektiboa eta diziplinartekoa da, eta jota eskolak, koruak, dantza-taldeak eta instrumentu-ensemble bat biltzen ditu, bai eta ospe handiko jotariak ere.

Ikuskizunean azalpenak ematen dira, lan bakoitza testuinguruan jartzeko eta jendeari hainbat alderdi hurbiltzeko, hala nola jatorria, bilakaera eta interpretazio-ezaugarriak.

ANDOSILLA

 **URRIAREN 30ean**

 **19:30etan HESIKO AMA
BIRJINA BASILIKAN**

Sarrera doan, leku guztiak bete arte



GAITEROS DE ARTAJONA ARTAXOAKO GAITEROAK

Tradizioa eta sorkuntza: musika berriak Nafarroako gaitarako

Jardueraren helburua da Nafarroako gaitarako musika berriak zabaltzea, eta komunitateko musika-tradizioari sakonki lotutako instrumentu baten egungo bilakaera erakustea.

Programaren hasieran kalejira egingen da, eta gero kontzertu komentatu bat. Kontzertu horretan, sortu berri diren obrak aurkeztuko dira.

Jardueran Nafarroako hainbat gaitero-formaziok parte hartuko dute. Guztiek tradizioa eta sorkuntza garaikidea elkarriketan jartzen dituzte, eta gaitaren adierazpen-aukerak zabaltzen, egungo ikuspegitik.

ARTAJONA

📅 **URRIAREN 31n**

🕒 **18:30etan KALEJIRA ARTAXOAN**

Kontzertua

🕒 **19:30etan REYNO DE ARTAJONA ESPAZIO ESZENIKOAN**

Sarrera doan, leku guztiak bete arte. Aldez aurretik gonbidapena hartu behar da serviciosartajona.es/eventos.php webgunean

ERAKUSKETA

Artzaintzako lurraldeak

Formatu txikiko erakusketa honek aprobetxatzen du NBEk 2026. urtea Larreen eta Artzainen Nazioarteko Urtea izendatu zuela, artzaintzari edo lurraldearen ustiapen tradizionalerako azientaren mugimendu estrategikoari lotutako kultura materiala eta immateriala erakusteko. Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoak artzain transhumanteek egindako eta erabilitako pieza batzuk gordetzen ditu bere bildumetan, bai eta antzinako jarduera horren aurreko hamarkadetako zein gaur egungo egoera islatzen duen ikus-entzunezko hainbat material ere. Izan ere, jarduera hori berreskuratzen nahi da, klima-aldaketarekiko eta landa-munduko despopulazioarekiko alternatiba erresilientea baita. Lehenengo aldiz, erakusketa bi egoitzatan erakutsiko da, Erronkariarren altxonbidearen bi mutur geografikoetan. Izan ere, Foru Komunitateko bide transhumanterik ikonikoa da, eta Pirinioak Errege Bardearekin lotzen ditu.

RONCAL / ERRONKARI



**IRAILAREN 5etik
URRIAREN 25era**

JULIÁN GAYARRE MUSEO-ETXEAN
juliangayarre.com/eu/hasiera

TUDELA



**2026ko URRIAREN 31tik
2027ko URTARRILAREN 17ra**

MUÑOZ SOLA ARTE MODERNOKO MUSEOAN
tudelacultura.com/museo-munoz-sola/



Cultur
!zan
2026